



COVID-19 FUNTSA ETA EKONOMIA ITUNA. ERAGINIK IZAN AL DU ALDEBAKARREKO ARRISKUAREN PRINTZIBIOA BETETZEAN?

MIKEL ERKOREKA ETA NEREA URRUTIA (*)

Laburpena

Euskal Autonomia Erkidegoak parte hartu zuen 2020an gobernu zentralak sortutako COVID-19 Funtsean, pandemiak eragindako larrialdi-egoeraren aurrean autonomia-erkidegoei finantza-laguntza emateko sortu zena. Artikulu honen helburua parte-hartze horrek euskal erakundeek finantza-autonomian izan zuen eragina eta Ekonomia Itunaren sistema zuzentzen duen aldebakarreko arriskuaren printzipioan izan zitezkeen ondorioak aztertzea da. Funttsaren izaeran eta finantza-irismen mugatuan oinarrituta, artikuluak ondorioztatzen du euskal erakundeek aldebakarreko arriskuaren printzipioa errespetatu dutela.

Hitz-gakoak: Federalismo fiskala, Ekonomia Ituna, COVID-19 Funtsa, aldebakarreko arriskua, defizita.

Abstract

La Comunidad Autónoma del País Vasco participó en el Fondo COVID-19 que creó el gobierno central en 2020 para apoyar financieramente a las Comunidades Autónomas ante la situación de emergencia provocada por la pandemia. El objetivo de este artículo es analizar qué efectos tuvo esta participación en la autonomía financiera de las instituciones vascas y sus posibles consecuencias en el principio de riesgo unilateral que rige el sistema de Concierto Económico. El artículo concluye que, en base a la naturaleza y alcance del Fondo, la participación del País Vasco sobre el mismo no afectó en el cumplimiento del principio de riesgo unilateral.

Palabras clave: Federalismo fiscal, Concierto Económico, Fondo COVID-19, riesgo unilateral, déficit.

(*) Itun Ekonomikoaren eta Foru Ogasunen Ikerketarako Agiritegia (UPV/EHU).

1. SARRERA

COVID-19aren pandemiak aparteko proba-laborategia sortu du larrialdi egoeren aurrean gobernantza-sistemek duten erresistentzia ebaluatzeko. Izan ere, gobernuen arteko harremanen eta zerga- eta finantza-harremanen esparrua modu batera edo bestera aldatu egin da herrialde gehienetan pandemiaren ondorioz. Osasun-, ekonomia- eta zerga-krisiak agerian utzi du sistema bakoitzak finantza publikoak eraginkortasunez kudeatzeko izan duen gaitasuna. Federalismo eta/edo deszentralizazio fiskal ereduetan, COVID-19aren krisia laborategi interesgarria izan da gobernu azpizentralen finantzaketa-sistemen eta finantza-publikoen sendotasuna eta erresiliencia ebaluatzeko eta alderatzeko¹.

Pandemiaren ondorioz, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoetako ogasunen zerga-bilketaren murrizketa larria eman da, euskal erakundeen finantza-autonomian eraginez, eta eztabaidara ekarriz Ekonomia Itunaren finantza-sistema zuzentzen duen aldebakarreko arriskuaren printzipioa.

Larrialdi-egoeraren aurrean, 2020an gobernu zentralak finantzaketa-funts berezi bat sortu zuen autonomia-erkidegoei finantza-laguntza emateko: COVID-19 Funtsa. Funts hori araubide erkideko finantzaketa-sistematik kanpo sortu zen, eta 16.000 milioi euro banatu zituen autonomia-erkidegoen artean. Euskal Autonomia Erkidegoak (EAE) eta Nafarroak ere parte hartu zuten funts horretan, partzialki izan bazen ere.

Artikulu honen helburua parte-hartze horrek euskal erakundeen finantza-autonomian izan zuen eragina aztertzea eta Ekonomia Itunaren sistema arautzen duen aldebakarreko arriskuaren printzipioan izan ditzakeen ondorioak ikertzea da: COVID-19 Funtsak eraginik izan al du aldebakarreko arriskuaren printzipioa betetzean?

1 Steytler, N. (2021). *Comparative Federalism and Covid-19. Combating the pandemic*. Routledge; Cameron, D. (2021). The relative performance of federal and non-federal countries during the pandemic. *Forum of Federation Occasional Paper Series*, 50; Chattopadhyay, R., Knüpling, F., Chebenova, D., Whittington, L., & González, P. (Ed.). (2021). *Federalism and the Response to COVID-19*. Routledge.

Ikerketa 2020ko zerga-ekitaldian oinarrituko da, eta zerga- eta aurrekontu-analisiaren tresnak erabiliko dira azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa garatzeko. Ikerketa lehen mailako iturrietan oinarrituko da, horien artean nabarmentzekoak izanik Eusko Jaurlaritzak egindako aurrekontu gauzatzearen estatistikak, Espainiako Ogasun Ministerioak argitaratutako autonomia-erkidegoen aurrekontu-informazioa eta Espainiako Bankuak osaturiko zor publikoaren estatistika-serieak.

Artikulu laur ataletan egituratuko da, sarrera honetaz gain. Lehen atalean, finantza-autonomiaren kontzeptua eta aldebakarreko arriskuaren printzipioa aztertzen dira, eta Ekonomia Itunaren sistema egituratzeko orduan duten garrantzian jartzen da arreta. Bigarren atalean, COVID-19 Funtsak EAEko aurrekontuetan eta defizitaren bilakaeran izan duen eragina analizatzen da. Hirugarren atalean COVID-19 funtsaren izaera eta ezaugarri nagusiak analizatzen dira, aldebakarreko arriskuaren printzipioaren argitan. Ondorioen azken atalean, ikerketaren emaitza nagusiak aurkezteaz gain, sarrera honetan planteaturiko funtsezko galderari erantzun zaito.

2. FINANTZA-AUTONOMIA ETA ALDEBAKARREKO ARRISKUAREN PRINTZIBIOA EKONOMIA ITUNEAN

Ekonomia Itunaren Legeak ezartzen duenez, "lurralde historikoetako tributu-sistema osatzen duten tributuak ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea berrikustea eta biltzea foru-aldundiei dagokie", eta, eskumen hauek burutze-ko, "Estatuko Ogasun Publikoak dituen ahalmen eta eskubide berak izango dituzte"². Hortaz, foru-ogasunek zerga-ziklo osoa kontrolatzen duten ogasun integral gisa funtzionatzen dute, eta Europako zerga- eta finantza-botere handieneko erakunde azpizentralen artean kokatzen dira³.

2 Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa. (2019). *Ekonomia Ituna. Kupoa zehazteko metodologia 2017-2021*. Eusko Jaurlaritzako Gobierno Vasco; 7.

3 Erkoreka, M. (2019). The Basque and Swiss fiscal systems building processes as a source of lessons for the European integration process. G. Martínez & X. Irujo (Ed.), *International perspectives on Fiscal federalism: the Basque tax system*. Center for Basque Studies - University of Nevada.

Foru-aldundiek beren lurraldean indarrean dauden zerga ia guztiak kudeatzen eta biltzen dituzte⁴. Aldi berean, Estatuari urteko zenbatekoa edo kupoa ordaintzeko betebeharra dute, EAEn eta Estatuaren arteko finantza-balantza orekatzeko. EAEk bere gain hartzen ez dituen Estatuaren zama guztiei dagokien ekarpena da kupoa.

Foru-ogasunen zerga-bilketaren eta kupoaren ordaintzaren arteko aldea euskal erakundeen esku geratzen da, finantza-autonomia gisa. Finantza-autonomia hori EAEko hiru gobernu-mailen artean banatzen da, beren eskumenak eta gastu-politikak ordaintzeko. Horrela, euskal sektore publikoa modu autonomoan finantzatzen da zerga-bilketatik eratorritako diru-sarrera propioen bidez, beste erakunde edo administrazio batzuetatik ia transferentziarik jaso gabe. Foru federalismo fiskalaren sistema, finantza-desoreka bertikal positiboaren eta zerga-erantzukidetasun printzipioa zorrotz betetzearen adibide bat da: gobernu zentralak euskal erakundeei funtsak transferitu ordez, haiek finantzatzen dute gobernu zentralaren diru-kutxa⁵. Era horretan, botere zentralaren transferentziarik menpekotasun fiskal eta finantzariorik eratorritako arrisku politiko eta finantzariorik minimizatzen dira.

Foru federalismo fiskalaren eredua, aldebakarreko erantzukizun- edo arrisku- sistema da⁶. Izan ere, egoera ekonomikoa eta finantzariora edozein duelarik ere, EAEk ordaindu beharreko kupoaren kantidadea Estatuaren esku dago erabat. Hau da, kupoa zehazteko metodoa guztiz exogenoa da: EAEk ez du bere egoeraren edo baliabideen arabera ordaintzen, gobernu zentralaren beharren eta erabakien arabera baizik. Hori dela eta, EAEk bere gain hartzen du balizko zerga-bilketa txikiagoaren arriskua, bai euskal ekonomiaren egoera txarragoa bada Estatuarekin konpara-

tuta, bai EAEk bere tributu-araubidea finkatzeko onetsi dituen arauak zerga-bilketaren beherakada ekartzen bada, bai EAEk bere tributuak biltzeko eta kudeatzeko eragiteko ahalmen txikiagoa bada, besteak beste⁷.

Ondorioz, diru-bilketa txikiagoak edo kupoaren aldebakarreko igoerak zuzenean eragiten du euskal erakundeek finantza-autonomian, euren eskumenak eta eginkizunak finantzatzeko baliabideak murriztuz.

Aldebakarreko arriskua nabarmenagoa egiten da krisialdi egoeretan. XXI. mendearen lehen bi hamarkadetan, ekonomia-hedapeneko zikloetan, foru-aldundien zerga-bilketa kupoaren zenbatekoaren gaintik hazi zen proportzionalki; horrek, euskal erakundeek finantza-autonomia handitzea ekarri zuen. Ziklo ekonomikoa aldatu zenean – 2008 eta 2020-, ordea, egoera alde-rantzikatu egin zen, eta finantza-autonomiaren beherakada nabarmena eragin zuen (Hurrengo orrialdeko grafikoa).

Euskal sektore publikoak ia ez duenez beste administrazio batzuen transferentziarik jasotzen, krisi ekonomikoei bere baliabideen bidez egin behar die aurre, zerga- eta aurrekontu-tresnak eta zorra erabiliz helburu horretarako. Estatuaren antzera, euskal erakundeek zerga- eta aurrekontu-erreformak diseinatu eta ezarri behar dituzte, diru-sarreen eta gastuen politikak egoera ekonomikora egokitzeke, hirugarrenen transferentzien eta diru-laguntzen menpe egon gabe.

Aldebakarreko arriskuaren printzipioa, zerga-autonomia babesteko bermea da, bai eta autonomia hori eraginkortasunez, erantzukizunez eta era jasangarrian gauzatzeko pizgarria ere.

Aldebakarreko arriskuak praktikan duen eragina aztertzeke, araubide erkideko eta foru-araubideko autonomia-erkidegoen arteko zorraren kudeaketaren bilakaera konparatu dezakegu, 2008ko eta 2020ko krisialdietan. 2010etik aurre-


4 Armentia, J. (2015). Introducción al Sistema Tributario del País Vasco. IVAP.

5 Rubí, J. G. (2008). El Concierto Económico vasco. *Federalismo fiscal y Europa. Zerga federalismoa eta Europa. Fiscal federalism and Europe*. Parlamento Vasco-Eusko Legebiltzarra –Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak.

6 Lambarri, C., & Larrea, J. L. (1991). Financiación de las Instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El Concierto Económico: el cupo. IVAP.

7 Informazio gehiago nahi izan esker, kontsultatu Ekonomia Ituna sustatzeko eta hedatzeko *Ad Concordiam* elkartearen web orrialdea: www.conciertoeconomico.org

1. Grafikoa. Finantza-autonomiaren bilakaera (2003-2020)



Iturria: Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco, *Aurrekontu gauzatzearen estatistika*. Egileek egina.

ra, 2008ko krisi ekonomikoaren eragina arabi-
de erkideko autonomia-erkidegoen kontuetan
nabaritu zenean, haietako batzuek likidezia-krisi
larria pairatu zuten. Zenbait autonomia-erkide-
gok jasan zuten likidezia-krisi larriaren aurrean,
eta finantza-merkatuetan finantzatu ahal izate-
ko aurkitu zituzten zailtasunak zirela eta, gober-
nu zentralak Likidezia Funts Autonomikoa sortzea
erabaki zuen 2012an. Modu horretan, administra-
zio zentralak kreditu-lerro bat eman zien autono-
mia-erkidegoei, beren zorra baldintza mesede-
garritan eta merkatura jo gabe birfinantzatzeko
aukera izan zezaten. Teknikoki, Likidezia Funtsa-
ren baliabidea ez zen Estatuaren erreskatetzat
hartu; baina funtsa jasotzeko erkidegoek aplikatu
behar izan zituzten aurrekontu doikuntza-plan zo-
rrotzak kontuan izanik, erreskate inplizitu batekin
parekatzea ahalbidetzen du⁸.

Erkidegoak laguntzeko likidezia mekanismo gehi-
garriek indarrean jarraitzen dute gaur egun, eta
2020ko krisian ere erabili izan dira⁹. Horren adie-

razgarri da 2020ko ekitaldiaren itxieran, autono-
mia-erkidego guztien zorraren %59,3 administra-
zio zentralaren esku egotea¹⁰.

Salbuespen gisa, EAE eta Nafarroa dira aldi ho-
rretan Estatuarekin zorpetu ez ziren, eta haien
finantzazio beharrak estaltzeko zorraren merka-
tura jotzea erabaki zuten autonomia-erkidego
bakarrak – nahiz eta baldintza okerragoetan
izan-. Erabaki horren bidez, Estatuaren aurrean
haien autonomia politiko eta finantzarioa ba-
bestez gain, euskal erakundeek, koherentzia
politiko eta ekonomikoa erakutsi nahi izan dute
aldebikotasunaren, zerga-erantzukizunaren eta
aldebakarreko arriskuaren printzipioaren aplika-
zioan. Era berean, foru finantzaketa-sistemaren
indarra azaleratzeko eta finantza-merkatuetara
konfiantza-mezua bidaltzeko ere balio izan du.
COVID-19ak 2020an sortutako krisi fiskalaren une-
rik kritikoenak gainditu ondoren, kreditu-kalifika-
zioko agentzia nagusietako bik (Standard & Poor
's eta Moody 's), EAeko zorraren kalifikazioa – eta
Nafarroakoa-, Estatu subiranoaren (Espainiako)

8 Fernández-Llera, R. (2015). Responsabilidad financiera de las Comunidades Autónomas y rescates internos. J. Tudela & M. Kölling (Ed.), *Costes y beneficios de la descentralización política en un contexto de crisis: el caso español*. Fundación Manuel Giménez Abad.

9 Martínez-López, D. (2020). La gobernanza fiscal de las Comunidades Autónomas. Una valoración crítica

de su estado actual con perspectivas de reforma. *Investigaciones Regionales - Journal of Regional Research*, 2020/2(47), 31-56.

10 Forte-Campos V., García-Moral, B. & Laporta-Cabrera, M. I. (2021). *La evolución de la deuda pública en España en 2020*. Banco de España.

zorraren kalifikazioaren gaintik mantendu dute. Nazioartean ohikoa ez den egoera hori, ez da errepikatzen araubide erkideko autonomia-erki-degoen artean.

Ondorio ekonomiko, finantzario eta politikoetatik haratago, nahitaezkoa da aldebakarreko arriskuaren printzipiotik eratorritako garrantzi juridikoa ere aipatzea. Espainia Europar Batasunean integratu zenetik, foru federalismo fiskal sistema esparru juridiko eta politiko berri batera egokitu behar izan zen. Aldebakarreko arriskuaren printzipioaren aplikazioa, euskal erakundeek beren erabakien erantzukizuna beren gain hartzen dutela ziurtatzen duena, funtsezkoa izan da Europar Batasuneko ordenamendu juridikoan foru-araubidearen iraunkortasuna eta babesa bermatzeko.

Ildo horretatik, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren (EJJA) 2006ko irailaren 6ko epaia ("Azores kasua"), mugarririk izan zen Ekonomia Itunaren historian. Funtsezko epaia izan zen erakunde azpizentralek zerga-autonomia erabiltzeko dituzten mugen gaineko doktrina finkatzeko. Epaia horretan, EBJAk zehaztu zuen estatu kide bat osatzen duten erakunde azpizentralek zerga-sistema bereziak izan ditzaketela, eta zerga bera modu desberdinean aplika dezaketela, baita sistema asimetrikoetan ere.

Sententziak ebatzi zuenaren arabera, zerga-autonomia eta botere arauemailea duten erakunde azpizentralek erabateko autonomia izan ezker, ez litzateke estatu-laguntza izango. Baldintza honen betearazpena autonomia-test hirukoitz baten bidez ebaluatzen da: autonomia instituzionala, prozedurazko autonomia eta autonomia ekonomikoa¹¹.

Azores kasuaren ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (EAEAN) bi arazo prejudizial aurkeztu zizkion EBJAri, Espainian zabalik zeuden lurralde historikoetako zerga- eta finantza-autogobernuarekin lotura zuten zenbait

prozedura judizialen gainean¹². EBJAren 2008ko irailaren 11ko epaiak, autonomia-test hirukoitzak gaintzeko baldintzak garatu eta zehaztu zituen, arreta berezia jarri autonomia ekonomikoaren esparruari. Foru finantzaketa-sistemari buruz EAEANK planteaturiko interpretazioa bermatu zuen EBJAk. Era horretan, foru federalismo fiskal asimetrikoaren sistema bermaturik eta babesturik gelditu zen Europar Batasunaren ordenamendu juridikoan. Aldebakarreko arriskuaren printzipioa funtsezkoa izan zen ebazpenaren norabidea azaltzerako orduan. EAEANK hurrengo arrazoibidea erabili zuen Ekonomia Itunaren sistemak aldebakarreko arriskuaren printzipioa betetzen duela justifikatzeko: "Euskal Autonomia Erkidegoa zerga-arloko politiken erantzule fiskala da, eta bere gain hartzen ditu bilketa txikiagoak bere eskumeneko zerbitzu eta azpiegituretako gastu publikoaren ahalmenean izan ditzakeen ondorioak. [Itunpeko] sisteman ez dago berariazko arau-aurreikuspenik bilketaren murrizketak sortuko lukeen zerga-defizita botere publiko zentralak edo beste eskualde batzuek jasateari edo diruz laguntzeari buruz"¹³.

Beraz, aldebakarreko arriskua foru finantzaketa-sistemaren oinarriko printzipioa da, eta printzipio hori betetzeak, zerga- eta finantza-ondorioak ez ezik, ondorio politikoak eta juridikoak ere baditu.

3. COVID-19 FUNTSAREN ERAGINA EAeko AURREKONTUETAN ETA DEFIZITAREN BILAKAERAN


EAEko ekonomiak BPGaren %9,5eko beherakada bortitza izan zuen 2020an. Honen ondorioz, foru-aldundien zerga-bilketa agregatua %9,8 jaitziz zen¹⁴. Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien gastu kontsolidatua, aldiz, 2019ko krisi aurreko

12 Alonso, I. (2010). El Concierto Económico en Europa. El equilibrio entre la autonomía tributaria foral y la construcción de la Europa del futuro. IVAP.

13 Hurrengo artikuluan aipatua, Rubí, J. (2009). El cupo y el criterio de la autonomía económica y financiera a la luz de la Sentencia del Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas de 11 de septiembre de 2008. *Boletín JADO*, 17, 85-116; 92.

14 Guinea, I. (2021). Recaudación por tributos concertados de la CAPV: cierre 2020. *Zergak. Gaceta tributaria del País Vasco*, 61, 221-229.

11 Serrano-Gazteluurrutia, S. (2012). El Concierto Económico vasco ante el Juez comunitario. IVAP.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako-Gobierno Vasco, *Aurrekontu gauzatzearen estatistika*. Egileek egina.

ekitaldiaren antzeko mailan mantendu zen, gastu sozialak gora egin baitzuen. Ondorioz, krisi ekonomiko eta sozialak sakonki desorekatu zituen euskal erakundeen aurrekontuak, eta zerga-bilketaren eta gastu publikoaren arteko begi-bistako tartea zabaldu zuen.

Pandemiak 2020ko aurrekontu publikoetan sortu zuen hutsuneari aurre egiteko, euskal erakundeek hiru baliabide edo tresna nagusi erabili zituzten:

- Zerga- eta aurrekontu-politika. Pandemiak ez zuen egiturazko aldaketarik eragin itunpeko gobernantza fiskalaren esparruan. Alarma-egoerengatik ere, foru-erakundeen tributuen arloko araugintza-ahalmena eta kudeaketa-autonomia bere horretan mantendu ziren¹⁵. Foru-aldundiek beren zerga-sistemak erregulatzen eta kudeatzen jarraitu zuten, zergadunen beharrei erantzunez, zerga-bilketaren bidez Estatuari kupoa ordainduz, eta euskal sektore publikoaren finantzaketa-beharrak bermatuz¹⁶.

- Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren esparrua doitzeari buruz. Defizitaren eta zor publikoaren helburuak gorantz eguneratzeak eta aurrekontu-egonkortasunaren esparrua aldatzeak, itunpeko sistemaren likidezia bermatu eta euskal erakundeen zorpetzea handitzea ahalbidetu zuen.

- COVID-19 Funtsa. 2020ko ekitaldian, ohiko finantzaketa-sistema autonomikotik kanpo autonomia-erkidegoei finantza-laguntza emateko gobernu zentralak sortu zuen funts nagusia izan zen. Itzuli behar ez den eta baldintzarik gabeko aurrekontu-izae-rako aparteko funtsa izan zen. Funtsak, 16.000 milioi euro mobilizatu zituen, eta autonomia-erkidegoen artean banatu zen, pandemiak osasun-arloan (9.000 milioi), hezkuntzan (2.000 milioi) eta diru-sarreraren murrizketan (5.000 milioi) izan zuen eraginaren arabera:

15 Martínez-Bárbara, G. (2020). La fiscalidad en tiempos de pandemia: las haciendas forales frente a la Covid-19. *Zergak. Gaceta tributaria del País Vasco*, 59, 139-158.

16 Erkoreka, M. (2021b). El impacto fiscal y presupuestario de la pandemia de la COVID-19 en las finanzas

públicas del País Vasco: el Concierto Económico a examen. *Ekonomiaz*, 100(2), 158-187.

17 Alonso, I. (2020). El reconocimiento de la singularidad de las Diputaciones Forales en el ámbito de estabilidad presupuestaria: un hito trascendental en el desarrollo del Concierto Económico. *Forum Fiscal*, 269.

1. Taula. 2020ko COVID-19 Funtzaren banaketa autonomia-erkidegoen artean (mila eurotan)

Autonomia-erkidegoa	Osasuna		Hezkuntza	Diru-sarrerren murrizketa	GUZTIRA	COVID-19 Funtsa (BPGaren %)
	1. Tarte	2. Tarte	3. Tarte	4. Tarte		
Andaluzia	597,61	391,73	383,86	825,60	2.198,79	1,5
Aragoi	146,58	109,77	53,45	120,67	430,47	1,2
Asturias	106,10	63,84	32,53	96,26	298,73	1,4
Balear Uharteak	104,54	64,80	50,28	218,78	438,40	1,6
Kanariak	158,98	98,85	87,37	205,97	551,16	1,4
Kantabria	64,71	29,52	22,14	60,42	176,80	1,3
Gaztela-Mantxa	319,26	150,65	89,19	184,35	743,44	1,9
Gaztela eta Leon	349,16	195,66	84,04	214,57	843,44	1,5
Katalunia	1.246,53	474,50	337,44	1.107,09	3.165,55	1,5
Extremadura	96,00	58,14	43,30	79,99	277,42	1,4
Galizia	268,11	149,65	92,99	224,11	734,86	1,2
Errioxa	57,52	28,81	13,20	27,52	127,06	1,6
Madrilgo Erkidegoa	1495,75	613,87	291,70	945,05	3.346,37	1,0
Murtzia	98,16	86,05	73,82	130,85	388,88	1,3
Valentziako Erkidegoa	449,63	263,04	214,9	558,77	1.485,63	1,4
Lurralde erkidea, guztira	5.558,64	2.788,88	1.869,48	5.000,00	15.207,01	-
Nafarroa	88,73	56,80	29,29	0,00	174,82	0,9
EAE	328,63	152,32	87,23	0,00	568,18	0,8
Foru-lurraldea, guztira	417,36	209,12	116,52	0,00	742,99	-
Ceuta eta Melilla	24,00	12,00	14,00	0,00	50,00	-
GUZTIRA	6.000,00	3.000,00	2.000,00	5.000,00	16.000,00	-

Iturria: Espainiako Ogasun Ministerioa eta AIREF¹⁸. Egileek egina.

Autonomia-erkidegoen arteko funts-banaketa gobernu zentralak zehaztu zuen. Eusko Jaurlaritzak publikoki kritikatu zuen EAEk COVID-19 Funtsean izango zuen parte hartzea Ekonomia Ituneari ezarritako aldeko mekanismoen barruan aurretiaz negoziatu ez izana¹⁹.

Foru-finantzaketa sistema dela eta, gobernu zentralak diru-sarrerren murrizketak konpentsatzeko helburua zuen laugarren tartetik kanpo utzi zituen EAE eta Nafarroa. Ekainaren 16ko, 22/2020 Errege Lege-Dekretuaren Lehenengo Xedapen Gehigarriak ezartzen duenaren arabera, EAren

eta Nafarroaren kasuan, diru-sarrerren gutxitzea estaltzeko laugarren tarte "defizit eta zor publiko gisa zehaztuko da Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan eta Hitzarmen Ekonomikoaren Koordinazio Batzordean, hurrenez hurren". Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren esparrutik kanpo, 2020ko uztailaren 31n, Espainiako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak akordio bat lortu zuten EAren defizit eta zorraren helburuak gorantz eguneratzeko²⁰.

COVID-19 Funtzaren lau tarteetan parte hartu ez bazuen ere, bertatik jasotako 568,18 milioi euroek EAEko defizit ez-finantzarioa arintzea ahalbidetu zuten 2020an.

18 AIREF. (2020). Informe sobre las líneas fundamentales de presupuestos 2021 de las Comunidades Autónomas. AIREF - Informe, 2020/38; 17.


19 Irekia. (2020/06/16). "Eusko Jaurlaritzak Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoaren premiaz egiteko eskatu du, 16.000 milioi euroko COVID-19 Funtzaren banaketa eta defizitari eta zorrari buruzko bide berria aldeko ikuspegiarekin adosteko".

<https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/62197-gobernu-vasco-urge-celebrar-cmce-para-acordar-bilateralmente-reparto-del-fondo-covid-000-millones-euros-nueva-senda-deficit-deuda>

Grafikoan ikus daitekeenez, 2008an, EAren finantzaketa-beharrizana 2.553 milioi euro izatera heldu zen. 2008an krisi fiskal sakonagoa pairatu zuten foru-aldundiek. Hala ere, euskal sektore publikoak ez zituen ohiz kanpoko transferentzia-

20 Erkoreka, M. (2021b). El impacto fiscal y presupuestario de la pandemia de la COVID-19 en las finanzas públicas del País Vasco: el Concierto Económico a examen. *Ekonomiaz*, 100(2), 158-187.

3. Grafikoa. EAEn finantzatzeko ahalmena (+) / beharizana (-) (2002-2020)




Iturria: IGAE, Contabilidad nacional, SEC 2010. Operaciones no financieras del subsector administración regional, serie anual. Egileek egina.

rik jaso. Hori dela eta, euskal erakunde publikoak zorpetzera jo behar izan zuten defizita estaltzeko.

2020an, aldiz, krisiak eragindako finantza-beharri-zanen zati bat euskal sektore publikotik kanpoko transferentzien bitartez estali zen. Esan beharra

dago, ordea, COVID-19 Funtsaren 568 miliroiak zenbatu gabe ere, EAeko finantza-defizita 2008ko ekitalditik urrun kokatuko litzatekela. Dena dela, COVID-19 Funtsaren eragina nabarmena izan da Eusko Jaurlaritzaren diru-sarreraren aurrekontuko transferentzien kapitulu-banaketaren bilakaeran:

4. Grafikoa. EAEn gastu arruntetarako transferentzia kapituluaren banaketa (2008-2020)



Iturria: Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco, EAEn Administrazio Orokorraren sarrera aurrekontuaren likidazioak. Egileek egina.

Nahiz eta foru-aldundien ekarpenak Eusko Jaur-laritzaren diru-iturri nagusia izaten jarraitu badute ere, aldagai honen proportzioa jaitsi egin zen 2020an. Foru-aldundien ekarpenen ehunekoa jaitsi egin zen, Estatuaren transferentzien atala ia nulua izatetik, %6,48 izatera heldu zelako, COVID-19 Funtsa dela eta. 2008ko krisiaren kudeaketarekiko aldea suposatzeaz gain, egoera honek aldaketa bat ekarri du Ekonomia Itunaren finantzen azken aldiko bilakaeran.

4. COVID-19 FUNTSA ETA ALDEBAKARREKO ARRISKUAREN PRINTZPIOA

COVID-19 Funtsak egoera interesgarria sortu du Ekonomia Itunaren sistemaren aldebakarreko arriskuaren printzipioaren aplikazioaren mugak eta kasuistikak aztertzeko eta interpretatzeko. Funttsaren izaera sakontasunean ikertzea beharrezkoa da COVID-19 Funttsak aldebakarreko arriskuaren printzipioa betetzean izan duen eraginari buruzko artikulua sarreran planteatutako galdera nagusiari erantzun bat eman aurretik. Horretarako, jarraian, Funttsaren ezaugarri nagusiak eta finantza-irismena aztertuko dira, Ekonomia Itunaren sistemaren argitan.

Ohiz kanpokoa

COVID-19 Funtsa, gobernu zentralak dekretaturiko alarma-egoera indarrean zegoelarik onartu zen²¹. COVID-19 Funtsa sortzeko Errege Lege-Dekretuaren zioen azalpenean, espresuki aipatzen da Funttsaren ezohiko izaera, eta adierazten da pandemiak sorturiko "premia berezi eta presazko horren aurrean, Gobernuak bere gain hartu duela neurriak hartzeko konpromisoa", autonomia-erkidegoek "beren eskumenekoak diren funtsezko zerbitzu publikoak ematen jarraitu ahal izateko". Era berean, legegileak Konstituzioaren 86. artikuluan oinarritu zuen lege-dekretuaren onarpena, "aparteko eta presako beharra"-ren justifikaziopean.

Krisiaren osasun-izaerak ez du loturarik aurreko beste krisi batzuen izaera ekonomiko edo finantza-

riorekin, hala nola, 2008koarekin. Beraz, Ongizate Estatu kontsolidatu zenetik inoiz hartu ez diren ohiz kanpoko neurriak hartzea bultzatu ditu munduko gobernu gehienak²². Ohiz kanpoko neurriak eta politikak hartzea ez da EAren edo Espainiaren erabaki esklusiboa izan. Pandemiak aldatu egin ditu munduko herrialde eta nazioarteko erakunde gehien finantziamendu instituzionalaren eta finantzaketa-sistemen oinarriak. Horien artean, tradizio federal errotua duten herrialdeak ere aurki daitezke; besteak beste, Suitza edo Estatu Batuak²³.

EAEko maila anitzeko gobernantza-sistemaren eskala gorenean, Europako Batzordeak berak ere Europar Batasunaren historian aurrekaririk ez duten ezohiko neurriak onartu zituen. Krisi ekonomiko larriko egoeretarako aurreikusita dagoen Egonkortasun eta Hazkunde Itunaren babes-klausula orokorra aktibatu zuen lehen aldiz 2020ko martxoan. Modu honetan, Europar Batasuneko administrazio publikoentzako aurrekontu-diziplinako arauak aldi baterako eten ziren. Era berean, uztailan, *Next Generation EU* Europako Berreskuratzeko Funtsa sortzea onartu zuen, 750.000 milioi euro mobilizatuz eta zor mankomunatuarekin finantzatuta. Ohiz kanpoko neurri horien helburua estatu kideei laguntza eta oxigeno finantzarioa ematea izan zen, Europar ekonomia krisitik lehenbailehen atera ahal izateko.

Salbuespenezkoa eta borondatezkoa

Ohiz kanpoko izaeraz gain, lege-dekretuak xedatzen du COVID-19 Funtsa "salbuespenezko fondoa dela". Ildo horretan, zehaztu egiten du "finantzaketa-sistema autonomikotik eta likidezia-mekanismo gehigarrietatik independenteak diren baliabide gehigarriak direla". Hain zuzen ere, Funtsa jarraipen-aurreikuspenik gabe sortu zen, *ad hoc* aparteko kreditu baten bidez finantzatuta.

EAEko zorraren kalitatea ebaluatzean, kreditu-kalifikazioko agentzia nagusiak – Standard & Poor 's, Moody 's eta Fitch – bat datoz autonomia fiskala faktore giltzarri gisa nabarmentzean,

21 Erkoreka, M., Grau, M., & Kölling, M. (2021). Decentralisation and COVID-19: stress-testing the Spanish territorial system. N. Steytler (Ed.), *Comparative Federalism and Covid-19. Combating the pandemic* (pp. 33-50). Routledge.

22 Erkoreka, M. (2021a). Economía y salud pública en el País Vasco en tiempos de la gripe española. *Gaceta Médica de Bilbao*, 118, 55-62.

23 Steytler, N. (2021). *Comparative Federalism and Covid-19. Combating the pandemic*. Routledge.

foru-zorrrak krisi-egoeretan duen portaera sendoa azaltzeko eta foru-zorrraren *rating*-a Estatu subiranoaren ginetik egon daitekeela justifikatzeko²⁴.

EAEko autonomia fiskala ebaluatzean, kalifikazio-agentziak ez dira mugatzen esparru teoriko-legala aztertzeraz; aitzitik, zorrraren kudeaketaren praxian ere sakontzen dute. Zerga-erantzukizunaren eta aldebakarreko arriskuaren printzipioak zerga-autonomia babesteko funtsezko elementu gisa nabarmentzen dituzte.

Eusko Jaurlaritzak gobernu zentralak artikulatutako likidezia-mekanismo gehigarriari ez atxikitzeko eta merkatuaren bidez finantzatzeko hartutako erabakia, foru-finantzaketa-sistemaren sendotasunaren eta erresilientziaren seinale gisa baloratu dute hiru kalifikazio-agentziek. Hiru agentziak bat datoz zorrraren merkatuan jarduteko EAEk erakutsi duen ibilbide sendoa azpimarratzean; izan ere, ibilbide horri esker, gobernu zentralarekiko autonomia fiskala, finantzarioa eta politikoa bere horretan mantendu ahal izan dira, baita 2008ko finantza-krisiaren unerik zailenetan ere.

2020ko krisiaren testuinguruan, EAEko esparru instituzionalean eta foru finantzaketa-sisteman COVID-19 Funttsak izan duen eragina aztertzen du S&P-ek. Partaidetza horrek foru-erakundearen autonomia fiskalean eraginik izan duen analizatzen du, foru-zorrraren kalifikazioa Estatu subiranoaren ginetik mantentzeko duen gaitasunarekin lotuta. S&P-ek COVID-19 Funttsaren salbuespeneko eta borondatezko izaeran jartzen du arreta, eta hurrengo ondorioa ateratzen du: "gobernu zentralaren laguntza salbuespenezkoa eta borondatezkoa denez, baldintza gabeko izaera, eta diru-sarreretan duen eragin mugatua kontuan izanik, ez dugu eragozpenik ikusten estatus bereziko eskualdeak, Estatu subiranoaren kalifikazioaren ginetik kalifikatzeko gaitasuna bere horretan mantentzea"²⁵. Ohartarazpen gisa,

24 S&P Global Ratings. (2021 [Martxoak 26]). Research Update: Basque Country Rating Affirmed At 'AA-'; Outlook Remains Negative, Mirroring That On Spain; Moody's Investors Service. (2019 [Apirilak 29]). Basque Country (The) (Spain): Update to credit analysis; Fitch Ratings. (2021 [Martxoak 18]). Autonomous Community of the Basque Country.

25 S&P Global Ratings. (2021 [Martxoak 26]). Research

honako hau gaineratzen du etorkizunari begira: "laguntza-mota horiek foru finantzaketa-sistemaren elementu errepikakor bihurtzen badira, edo eskualdeek behin eta berriz laguntza hori jasotzen badute, esparru instituzionalaren ebaluazioa berriro azter genezake, bai eta erakunde horiek estatu subiranoaren ginetik kalifikatzeko irizpidea ere".

Ez-selektiboa

COVID-19 Funttsa ez da modu espezifikoan sortu EAeri laguntza finantzarioa emateko, baizik eta autonomia-erkidego guztiei egin die mesede. Eusko Jaurlaritzak ez zuen zuzenean parte hartu, eta ez zuen eragiteko gaitasun erabakigarririk izan haren sorreran. Lehen adierazi den bezala, COVID-19 Funttsa, ohiko finantzaketa-sistema autonomikotik kanpo sortu zuen gobernu zentralak eta ez zuen aurretiaz negoziatu Ekonomia Itunak arautzen dituen alde biko batzordeetan.

Foru-araubideari dagokionez, Lege-Dekretuaren klausula selektibo nagusia lehen xedapen gehigarria da. Xedapen horrek, Funttsaren laugarren tartean parte hartzetik salbuesti zituen EAE eta Nafarroa. Horrenbestez, gobernu zentralak bere kabuz ezarritako klausula horrek ez zion mesederik egin foru-araubideko autonomia-erkidegoen finantza-interesei; alderantziz. Xedapen honen ondorioz, EAE eta Nafarroa izan ziren, termino erlatiboetan, Funttsaren baliabideez gutxien baliatu ziren autonomia-erkidegoak (ikus Funttsak autonomia-erkidego bakoitzaren BPGan izan zuen eragina, 1. Taulan eskuragarri dagoena).

Finantza-irismen mugatua eta finantza-iraunkortasunerako funtsezkoa ez dena

COVID-19 Funttsaren finantza-laguntzak 2020ko EAeren defizita arintzea ahalbidetu zuen arren, haren ekarpena ez da funtsezkoa izan Ekonomia Itunaren sistemaren finantza-iraunkortasunerako. Foru finantzaketa-sistemak, defizit-egoera nabarmen larrago baten aurrean erantzuteko gaitasuna erakutsi zuen 2008ko krisian. Gainera, azpi-

Update: Basque Country Rating Affirmed At 'AA-'; Outlook Remains Negative, Mirroring That On Spain.

marratu beharra dago, euskal sektore publikoak bere gain hartu duela defizitaren zatirik handiena, kupoa ordaintzeko betebeharra saihestu gabe.


Araubide erkideko autonomia-erkidegoen kasuan, gobernu zentralak, pandemiaren aurrekontu-ondorioetatik blindatu zituen 2020an. Gobernuak aparteko baliabideak eman zizkien krisiari aurrekontu-arazorik gabe aurre egin ahal izateko²⁶. Horrela, araubide erkideko autonomia-erkidegoek inoiz baino baliabide gehiago izan zituzten 2020an. Gobernu zentralak eskainitako finantza-koltxoari esker, autonomia-erkidegoek BPGaren 0,21 puntuko aurrekontu-defizita izan zuten 2020an – bederatzi autonomia-erkidegok superabita izan zuten –, eta 2019ko emaitza nabarmen hobetu zen, BPGaren %0,57ko defizitarekin itxi baitzen. Ez hori bakarrik, 2020an, 2006az geroztik aurrekontu-saldorik onena lortu zen²⁷. Likidezia-injekzio horrek araubide erkideko autonomia-erkidegoen epe laburreko finantzaketa-arazoak konpondu eta 2022ra arte atzeratu ditu,

2020ko ekitaldia likidatzen den momentura arte.

Foru-araubideko autonomia-erkidegoen finantzen bilakaera erabat desberdina izan zen. Euskal erakundeen finantzaketa, Estatuarena bezala, nagusiki zerga-bilketaren menpe dago. Araubide erkideko autonomia-erkidegoek ez bezala, euskal sektore publikoak berehala jasan zituen bere kontuen gain diru-bilketa txikiagoaren ondorioak. 2017tik elkarren segidako hiru ekitaldi superabitarekin itxi ondoren, EAek BPGaren %1,02ko defizitarekin itxi zuen 2020a (ikus 3. Grafikoa). EAE eta Nafarroa izan ziren 2019arekin alderatuta aurrekontu-saldoa okertu zuten autonomia-erkidego bakarrak²⁸.

Zorpetzeko beharrik izan ez zuten araubide erkideko autonomia-erkidegoekin alderatuz, foru-araubideko autonomia-erkidegoek diru-bilketa txikiagoaren eta defizitaren ondorioei aurre egin behar izan zieten, zorpetzera joz beren finantzaketa-premiak estaltzeko:

5. Grafikoa. Araubide erkideko eta foru-araubideko autonomia-erkidegoen zorraren urte arteko bilakaera (2003-2020)



Iturria: Espainiako Bankua, Estadísticas de Administraciones Públicas. Egileek egina.

26 Conde-Ruiz, J. I., Díaz, M., Marín, C. & Rubio-Ramírez, J. (2020). Observatorio fiscal y financiero de las CC.AA. Previsiones de cierre 2020. Fedea – Estudios sobre la Economía Española, 2020/35.

27 De la Fuente, A. (2021). Las finanzas autonómicas en 2020 y entre 2003 y 2020. Fedea – Estudios sobre la Economía Española, 2021/13.

28 Erkoreka, M. (2021b). El impacto fiscal y presupuestario de la pandemia de la COVID-19 en las finanzas públicas del País Vasco: el Concierto Económico a examen. *Ekonoziaz*, 100(2), 158-187.

5. ONDORIOAK

Euskal sektore publikoak krisi pandemikoak eragindako defizitaren zatirik handiena bere gain hartu badu ere, COVID-19 Funtzaren finantza-laguntzak 2020ko EAEn defizita arintzea ahalbidetu du. COVID-19 Funtzak ohiz kanpoko egoera sortu du Ekonomia Itunaren finantzen azken aldiko bilakaeran. Besteak beste, 2008ko krisiaren unerik zailenetan ere, euskal erakundeek ez zuten gobernu zentralaren ohiz kanpoko transferentziarik jaso.

Edonola ere, COVID-19 Funtzaren izaera eta finantza-irismen mugatua kontuan izanik, alde-bakarreko arriskuaren printzipioa betetzean eraginik izan ez duela ondorioztatu daiteke. Lehenik eta behin, ohiz kanpoko neurriak eta politikak hartzea ez da EAEko edo Espainiako gobernuen jardunbide eskusiboa izan. Krisiaren osasun-izaerak ez du loturarik izan aurreko beste krisi batzuen izaera ekonomiko edo finantzarioarekin eta ohiz kanpoko neurriak hartzea bultzatu ditu mundu osoko gobernu gehienak. Bigarrenik, Funtza salbuespeneko eta baldintzarik gabekoa izateaz gain, gobernu zentralak sortu zuen bere borondatez. COVID-19 Funtza ohiko finantzaketa-sistema autonomikotik kanpo sortu zuen gobernu zentralak, eta ez zuen aurretiaz negoziatu Ekonomia Itunak arautzen dituen alde-biko mekanismoen bidez. Beraz, Eusko Jurlaritzak ez zuen zuzenean parte hartu, eta ez zuen eragiteko gaitasun erabakigaririk izan haren sorreran. Hirugarrenik, COVID-19 Funtza ez da modu selektiboan sortu EAEn laguntza finantzarioa emateko, baizik eta autonomia-erkidego guztiei egin die mesede. Azkenik, Funtzaren finantza-irismen mugatua azpimarratu beharra dago. Izan ere, COVID-19 Funtzaren finantza-laguntzak 2020ko EAEn defizita arintzea ahalbidetu zuen arren, haren ekarpena ez da funtsezkoa izan Ekonomia Itunaren sistemaren finantza-iraunkortasunerako.

Hala eta guztiz ere, eta S&P-en txostenak jasotzen duen oharren ildotik, euskal erakundeek zuhur jokatu behar dute mota honetako funts edo diru-laguntzetan parte hartzerako orduan. Aldebakarreko arriskua foru finantzaketa-sistemaren oinarriko printzipioa da. Printzipio hori

kolokan jartzeak, zerga- eta finantza-ondorioak ez ezik, ondorio politikoak eta juridikoak ere izan ditzake. Etorkizunean, komenigarria izango litzateke horrelako ohiz kanpoko neurriak Ekonomia Itunaren sistemaren aurreikusitako alde-biko mekanismoak eta tresnak errespetatuz bideratzea: bai kupoaren bidez, bai Espainiako gobernuak eta Eusko Jurlaritzak adosturiko bestelako *ad hoc* akordioen bidez. Ekonomia Itunaren integritatea bermatzeaz gain, foru federalismo fiskal asimetrikoaren sistema legitimatzen duten oinarriak eta printzipioak interpretatzean sortu litezkeen eztabaidak eta mesfidantzak saihesten lagunduko luke.

Bibliografia:

AIReF. (2020). Informe sobre las líneas fundamentales de presupuestos 2021 de las Comunidades Autónomas. *AIReF - Informe, 2020/38*.

Alonso, I. (2010). *El Concierto Económico en Europa. El equilibrio entre la autonomía tributaria foral y la construcción de la Europa del futuro*. IVAP.

Alonso, I. (2020). El reconocimiento de la singularidad de las Diputaciones Forales en el ámbito de estabilidad presupuestaria: un hito trascendental en el desarrollo del Concierto Económico. *Forum Fiscal, 269*.

Armentia, J. (2015). *Introducción al Sistema Tributario del País Vasco*. IVAP.

Cameron, D. (2021). The relative performance of federal and non-federal countries during the pandemic. *Forum of Federation Occasional Paper Series, 50*.

Chattopadhyay, R., Knüpling, F., Chebenova, D., Whittington, L., & González, P. (Ed.). (2021). *Federalism and the Response to COVID-19*. Routledge.

Conde-Ruiz, J. I., Díaz, M., Marín, C. & Rubio-Ramírez, J. (2020). Observatorio fiscal y financiero de las CC.AA. Previsiones de cierre 2020. *Fedea – Estudios sobre la Economía Española, 2020/35*.

De la Fuente, A. (2021). Las finanzas autonómicas en 2020 y entre 2003 y 2020. *Fedea – Estudios sobre la Economía Española*, 2021/13.

Erkoreka, M. (2019). The Basque and Swiss fiscal systems building processes as a source of lessons for the European integration process. G. Martínez & X. Irujo (Ed.), *International perspectives on Fiscal federalism: the Basque tax system*. Center for Basque Studies - University of Nevada.

Erkoreka, M. (2021a). Economía y salud pública en el País Vasco en tiempos de la gripe española. *Gaceta Médica de Bilbao*, 118, 55-62.

Erkoreka, M. (2021b). El impacto fiscal y presupuestario de la pandemia de la COVID-19 en las finanzas públicas del País Vasco: el Concierto Económico a examen. *Ekonomiaz*, 100(2), 158-187.

Erkoreka, M., Grau, M., & Kölling, M. (2021). Decentralisation and COVID-19: stress-testing the Spanish territorial system. N. Steytler (Ed.), *Comparative Federalism and Covid-19. Combating the pandemic* (pp. 33-50). Routledge.

Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoa. (2019). *Ekonomia Ituna. Kupoa zehazteko metodologia 2017-2021*. Eusko Jauriaritza-Gobierno Vasco.

Fernández-Llera, R. (2015). Responsabilidad financiera de las Comunidades Autónomas y rescates internos. J. Tudela & M. Kölling (Ed.), *Costes y beneficios de la descentralización política en un contexto de crisis: el caso español*. Fundación Manuel Giménez Abad.

Forte-Campos V., García-Moral, B. & Laporta-Cabrera, M. I. (2021). *La evolución de la deuda pública en España en 2020*. Banco de España.

Fitch Ratings. (2021 [Martxoak 18]). *Autonomous Community of the Basque Country*.

Guinea, I. (2021). Recaudación por tributos concertados de la CAPV: cierre 2020. *Zergak. Gaceta tributaria del País Vasco*, 61, 221-229.

Lambarri, C., & Larrea, J. L. (1991). *Financiación de las Instituciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El Concierto Económico: el cupo*. IVAP.

Martínez-Bárbara, G. (2020). La fiscalidad en tiempos de pandemia: las haciendas forales frente a la Covid-19. *Zergak. Gaceta tributaria del País Vasco*, 59, 139-158.

Martínez-López, D. (2020). La gobernanza fiscal de las Comunidades Autónomas. Una valoración crítica de su estado actual con perspectivas de reforma. *Investigaciones Regionales - Journal of Regional Research*, 2020/2(47), 31-56.

Moody's Investors Service. (2019 [Apirilak29]). *Basque Country (The) (Spain): Update to credit analysis*.

Rubí, J. (2009). El cupo y el criterio de la autonomía económica y financiera a la luz de la Sentencia del Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas de 11 de septiembre de 2008. *Boletín JADO*, 17, 85-116.

Rubí, J. G. (2008). El Concierto Económico vasco. *Federalismo fiscal y Europa. Zerga federalismoa eta Europa. Fiscal federalism and Europe*. Parlamento Vasco-Eusko Legebiltzarra –Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak.

S&P Global Ratings. (2021 [Martxoak26]). *Research Update: Basque Country Rating Affirmed At 'AA-'; Outlook Remains Negative, Mirroring That On Spain*.

Serrano-Gazteluurrutia, S. (2012). *El Concierto Económico vasco ante el Juez comunitario*. IVAP.

Steytler, N. (2021). *Comparative Federalism and Covid-19. Combating the pandemic*. Routledge.